

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Aiako Udala

Ayuntamiento de Aia

2020





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea	9
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa	10
III.3 Langileria.....	10
III.4 Kontratazioa.....	11
III.5 Transferentziak eta dirulaguntzak	12
III.6 Beste alderdi batzuk	12
IV. FINANTZAREN ANALISIA	13
V. URTEKO KONTUAK	15
V.1 UDALA	15
V.2 AIA-LANTZEN SA	18
ERANSKINAK	19
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarria zaion legeria	19
A.2 Aurrekontua eta aldaketak	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	21
A.5 Langileen gastuak.....	22
A.6 Ondasun arrunten eta zerbitzu eta inbertsioen kontratazioa	23
A.7 Transferentziak eta dirulaguntza arruntak eta kapitalezkoak.....	25
A.8 Aurrekontuko zordunak, pasibo korrontea eta kontingentziak	27
A.9 Aia-Lantzen SA	28



ABREVIATURAS	29
I. INTRODUCCIÓN	31
II. OPINIÓN	32
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	32
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	32
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	33
III.1 Presupuesto y contabilidad	33
III.2 Ingresos y recaudación.....	34
III.3 Personal.....	34
III.4 Contratación	35
III.5 Transferencias y subvenciones	36
III.6 Otros aspectos.....	36
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	37
V. CUENTAS ANUALES	39
V.1 AYUNTAMIENTO	39
V.2 AIA-LANTZEN, S.A.	42
ANEXOS	43
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	43
A.2 Presupuesto y sus modificaciones	43
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	44
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos.....	45
A.5 Gastos de personal	46
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones	47
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes y de capital.....	49
A.8 Deudores presupuestarios, pasivo corriente y contingencias.....	51
A.9 Aia-Lantzen, S.A.	52



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HBGZ	Hirilurren Balio Gehikuntzaren Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
Mankomunitatea	Urola Kostako Mankomunitatea.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
TMIZ	Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga.
UFFF	Udal Finantzaketarako Foru Funtsa.



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Aiako Udalaren 2020ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta bere sozietatearen balantzea, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua, oroitidazkia eta aurrekontuaren likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Aiako udalerriak 2.039 biztanle zituen 2020ko urtarrilaren batean eta Udalak, udal administrazioaz gain, Aia-Lantzen SA udal sozietatea ere besarkatzen du; sozietate honen helburua da lurzorua, etxebizitzak, industria eraikinak, zerbitzuak eta zuzkidura komunitarioak kudeatzea da. Gainera, Udala Urola Kostako partaide da, zeinak eskualdeari zabor-bilketa zerbitzua eta enplegua, euskara eta turismoa sustatzeko zerbitzuak ematen baitizkio. Gipuzkoako Ur Kontsortzioko kide ere bada, GFARI atxikia, eta honen esku utzi zen udalerrian uraren hornidura eta saneamendu zerbitzua.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Etxez etxeko laguntza-zerbitzua eta argindarraren hornidura-zerbitzua zuzenean esleitu ziren, publikotasun eta lehia printzipioak urratuta, eta 2020an guztira hurrenez hurren 80.151 eta 69.434 euroren kostua izan dute (ikus A.6).

Epaitegi honen ustetan, aurreko paragrafoan aipatutako ez betetzea alde batera, Aiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateek zuzentasunez bete dute 2020ko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Udalak ez du ibilgetua eragiten duten egintza ekonomiko guztien kontularitzako erregistroa bermatuko duen jarraipenik egiten eta zehazki, ez du ibilgetua osatzen duten elementuen xehakapenik egiten. Hori dela eta, ezin jakin dezakegu Aktibo ez korronteko saldoek, 9,4 milioi euro, aktiboaren 2020ko abenduaren 31ko egoera egiazkoa islatzen duten.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan adierazitako salbuespena alde batera, Aiako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten entitateen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2020ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla fidela erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipioen eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira ekonomia eta finantza jarduera arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak ez ezik, baita kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- Atzerapenez onartu ziren aurrekontuaren eta kontu orokorraren likidazioa, 2021eko apirilean eta irailean, hurrenez hurren. Aurrekontu-araudiak, hurrenez hurren, martxoaren 31n eta uztailearen 31n ezartzen du horiek onartzeko epea.
- Onartutako aurrekontuak ez zuen transferentzietan buruzko eranskina jaso, esleitutako laguntzen emakida-prozedura adieraziko zuena. Langileen eranskinak onartutako plantilla zehaztu zuen, baina ez aurrekontuan jasotako ordainsariak. Era berean, ez ziren sartu udal-sozietatearen aurreikuspeneko egoera-orriak.
- 2020ko aurrekontuari 2018ko kredituak txertatu zitzaizkion, 55.000 euro; ordea, horiek ezin ziren hor jaso araudiak mugatu egiten dituelako txertaketa jarraituak.
- 2020ko Osoko Bilkuraren 2 bileretan ez zen alkatearen ebazpenen berri eman eta, bereziki, ez zen aurrekontuari egindako 4 aldaketan berri eman. Gainera, azken ebazpen horietako 3 ez ziren 2020ko dekretu-liburuan sartu.
- Kapital-transferentziengatik 2020an aitortutako gastuak 6.627 euroan gaintitu zuen aurrekontuko diru-izendapena. Gainera, 2020ko azaroan 13.781 euroren dirulaguntza deialdia egin zen inbertsioetarako, horretarako kontsignaziorik izan gabe. Bi kasuetan, aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar zatekeen.
- 2019ko irailaren 24ko Alkatetzaren ebazpenaren bidez, 2020tik 2023rako etorkizuneko aurrekontuen kargura elkarte bati 12.000 euroren dirulaguntza ematea onartu zen. Hainbat urtetarako denez, Udalbatzak onartu behar zukeen.
- Udalak 2020ko ondare-sarrerari egotzi zien 2020an udal igerilekuak eraberritzeko jasotako dirulaguntza. Hala ere, inbertsioak finantzatzen dituzten dirulaguntzak ondare-kontabilitateko sarrera gisa egotzi behar dira, inbertsio horien balio-bizitzarekiko proportzioan.
- Udal igerilekuetako abonuek eta sarrerek 29.065 euroren diru-sarrerak eragin zituzten 2020an, baina Udalari dagokion zenbateko garbia aitortu zen, 7.280 euro, kontratuan aurreikusitako emakidadunaren partaidetza deskontatu ondoren.
- Urtetako zabortegia ixteko aurreikusitako kostuei aurre egiteko (162.616 euro 2044ra arte) Mankomunitateari ekarpenak egiteko konpromisoa Oroitidazkian jaso zen, baina gastu-konpromiso gisa erregistratu beharko litzateke. Berebat, 2014an egindako zenbatespenak eguneratzeko ere eskatu beharko litzateke.

III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- TMIZaren errolda eta EIOZaren eta HBGZaren likidazioak ez zituen organo eskudunak onartu. Halaber, 2020ko tasa eta prezio publikoen likidazioak onartzeko ebazpenik ere ez dago
- Emanaldietako sarrerei eta udalekuei ezarritako prezio publikoak, 10.129 euro 2020an, ez zituen Udalbatzak onartu.
- Aldeak antzeman dira kobratzeke dauden diru-sarreraren kontabilitate-saldoen eta aztertu eta zuzendu beharko litzatekeen diru-bilketako sistema osagarriaren saldoen artean.
- Atzerapenak izan dira TMIZaren ordainagirien premiamenduan. Gainera, ez zitzaizkion GFaren Agentzia Beterazleari igorri HBZGaren ordaindu gabeko likidazioak.
- 2020an ekitaldi itxietako kobratzeko zeuden ordainagiriak baliogabetu ziren, 8.893 euroren zenbatekodunak. 2020an izapidetutako hiru espedienteetarik batean ere ez da ageri organo eskudunaren nahitaezko ebazpena.

III.3 LANGILERIA

- Udalak ez zuen lurraldeko aldizkari ofizialean argitaratu funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa eta hitzarmen kolektiboa onartu zituen 2008ko Udalbatzaren erabakia, 2020an indarrean zegoena.
- 2020an 16.514 euroren osagarriak ordaindu zitzaizkien 5 langileri, 2003-2019 aldian onartutakoak, baina LPZn jaso gabe.
- 2020ko aurrekontuaren espedienteen lanpostu berri bat duen eta beste baten ordainsariak aldatzen dituen LPZ bat jaso da, egindako aldaketak espedienteen justifikatu gabe. Gainera, aldaketa hauei ez zitzaien nahitaezkoa den publikotasuna eman.
- 2020ko abenduaren 31n, indarrean jarraitzen zuten 1992an eta 2013an formalizatutako obra edo zerbitzu jakin baterako aldi baterako 2 lan-kontratu, LPZko 2 lanpostu hutsen funtzioak betetzen zituztela. Ekoizpenaren inguruabarren ondorioz 2019an formalizatutako aldi baterako lan-kontratu batek ere indarrean jarraitzen zuen, zeinaren indarraldia 2020ko uztailearen 10ean amaitu baitzen.
- 2020an obrako 3 lan-kontratu formalizatu ziren 2020-21 ikasturterako, kirol-programak irakatsi eta koordinatzeko, % 16tik % 22ra bitarteko dedikazioa zutenak. 2008., 2015. eta 2018. urteetatik aurrera antzeko kontratuak formalizatu dira, eta hori beste kontratazio-modalitate batzuk erabiltzea eskatzen duten premien iraunkortasunaren erakusgarri da, Udalak zerbitzu horiek langile propioekin ematen jarraituko badu, behintzat.
- Urtebeteko aldi baterako kontratu baterako administrari laguntzaile bat hautatzeko prozesuan, alde aurretik udalerrian erroldatuta egotea jaso zen baldintza gisa. Aldi baterako kontratazioen betekizunek bat etorri behar dute bete asmo den lanpostua betetzeko eskagarriak diren betekizunekin.

- Udalak ez dio Gipuzkoako Foru Ogasunari jakinarazi langileei ematen dizkien gauzazko ordainsariak, batez ere bizi-aseguruei dagozkienak, 2.889 euro 2020an, nahiz eta horiek ez duten zergarik ordaindu behar Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

III.4 KONTRATAZIOA

2019ko abenduan 554.114 euroan (BEZa barne) esleitutako udal-igerilekuak konpontzeko obra-kontratua berrikustean, honako alderdi hauek hauteman dira:

- Kontratu hau izapidetzeko erabilitako prozedura ireki sinplifikatuak eskatzen du balio-judizioari lotutako irizpideak ez izatea % 25etik gorakoak, eta kasu horretan % 45ekoak ziren (proiektuaren azterketa eta eskaintako joko-parkearen kalitatea).
- Ez zen egin lizitazio-prozedura, eskatu beharreko kaudimen tekniko eta ekonomiko eta lotetan ez banatzea justifikatzen zuen memoriarik, besteak beste.
- 500.000 eurotik gorako lizitazio-prezioa zuen obra zenez gero, lizitatzailerik enpresa-sailkapena eskatu behar zitzaion.
- Balio-judizioei lotutako bi irizpideak baloratzen zituen txosten teknikoak guztizko puntuazioa eman baizik ez zuen egin, bi irizpideen artean bereizketarik egin gabe eta 8 eta 39 puntu bitarte esleitutako puntuazioak justifikatu gabe.
- Prezioaren faktorea baloratzeko erabilitako formulak ez ziren puntu gehigarririk ematen % 10etik gorako bajei, eta aurkeztutako 6 pliketarik 4k gehienezko baja eskaini zuten.
- 2 hilabeteko atzerapena izan zuen exekuzioak, luzapenik formalizatu gabe edo kontratua formalki eten gabe.

Beste erosketa batzuk

- 2 kontratu txikitik banatu zen udal frontoiko konponketa-obra, 91.222 euroren kostua zuena. 2020ko urtarrilean amaitu zen arkitekto baten laguntza-zerbitzuen kontratuaren indarraldia, eta urte horretako abendura arte lanean jarraitu zuen; 27.951 euroren kostua izan zuen. Bi kasuetan, prozedura ireki sinplifikatu laburtuaren bidez esleitu behar zatekeen gastua (ikus A.6).
- Ludoteka eta Gazteleku Zerbitzua, 30.060 euroren gastuarekin 2020an, ez zen aldatu Covid-19aren krisiak ekarritako egoerara egokitzeko.
- Kontratu txikiei dagokienez (40.000 eurorainoko obrak eta 15.000 eurorainoko zerbitzuak eta hornidurak), kontratazio-organoaren eta idazkari-kontuhartzailearen nahitaezko txostenak kontratua gauzatzen hasi aurretik egin beharko lirateke. Gainera, Udalak ez ditu kontratatzailearen profilean argitaratzen ekitaldian zehar formalizatutako kontratu txikiak.



III.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Udalak ez du Dirulaguntzen Plan Estrategiko nahitaezkoa onartu.
- Udalak ez zien publikotasunik eman dirulaguntzen emakiden ebazpenei.
- 30.000 eta 14.000 euroren 2 dirulaguntza izendun emateko ebazpenek ordainketa baimendu besterik ez zuten egin. Gauzatu beharreko jarduera zehaztu behar zatekeen, eta horrek bat etorri behar du Osoko Bilkurak onartutako gastu-partidaren eta -programaren deskribapenarekin. Era berean, ez zen arautu beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna, ezta justifikatzeko epea eta modua ere. Gainera, ordainketa aurreratu zen, aldez aurretik ordaintzeko beharra justifikatu gabe, eta ez zen egiaztatu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen zirela (ikus A.7).

III.6 BESTE ALDERDI BATZUK

- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, honako hauei buruzko datu gaurkotuak: aurrekontuak, urteko kontuak, Udalbatzaren aktak, emandako dirulaguntzak, goi kargudunen ordainsariak eta kudeaketako mandatuak. Azkenik, udal-laguntzak jasotzen dituzten elkarteek gardentasun-araudiaren betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko litzateke.
- Udal-sozietateak ez du web orririk, eta ez da sozietate horri buruzko informaziorik batere ematen udalaren webgunean.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan eta fiskalizazio-gai izan den urtean kitatutako magnitude nagusien bilakaera segidako taulan dago zehaztua:

FINANTZAREN ANALISIA

	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2018(*)	2019(*)	2020	2018	2019	2020
Zerga zuzenak, zeharkakoak, tasak eta best. sarr. (1, 2 eta 3 kap.)	927	837	755	445	408	370
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	1.404	1.598	1.375	675	778	674
Ondare sarrerak (5. kap.)	20	15	13	10	7	7
A. Sarrera arruntak	2.351	2.450	2.143	1.130	1.193	1.051
Langileria gastuak (1. kap.)	722	759	861	347	369	422
Ondasun arrunten erosketa eta zerbitzuak (2. kap.)	626	700	707	301	341	347
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.)	336	283	265	161	138	130
B. Funtzionamendu-gastuak	1.684	1.742	1.833	809	848	899
Aurrezki gordina (A-B)	667	708	310	321	345	152
Gastu finantzarioak (3. kap.)	-	-	-	-	-	-
Emaitza arrunta	667	708	310	321	345	152
- Maileguen amortizazioa (9. kap.)	-	-	-	-	-	-
Aurrezki garbia	667	708	310	321	345	152
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.)	-	-	-	-	-	-
Jasotako kapital transferentziak eta dirulaguntzak (7. kap.)	360	202	416	173	98	204
- Inbertsio errealak (6. kap.)	(808)	(287)	(984)	(388)	(140)	(483)
- Transferentziak eta emandako kapital dirulaguntzak (7. kap.)	(159)	(163)	(168)	(77)	(79)	(82)
Kapitalezko eragiketen emaitza	(607)	(248)	(736)	(292)	(121)	(361)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)	60	460	(426)	29	224	(209)
Diruzaintza geldikina	635	1.093	659	305	532	323
GODG	635	1.093	659	305	532	323
Zorpetzea 12.31n	-	-	-	-	-	-

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: % 8,9 egin dute behera 2018ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** Zerga-sarrerak % 18,6ko jaitsiera izan dute eta horren funtsezko arrazoiak dira zabor-bilketaren tasa Mankomunitateari eskualdatu izana eta EIOZ gutxiago bildu izana.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 2 egin dute behera, osagai nagusi duen Udal Finantzaketarako Foru Funtza % 3,5 murriztu baita Covid 19ak eragindako krisiaren ondorioz.



Funtzionamendu-gastuak: % 8,9 egin dute gora 2018 eta 2020 bitartean; hona hemen xehakapena:

- **Langile-gastuak** % 19,3 hazi dira hirurtekoan, 2019an eta 2020an izandako % 2,5eko eta % 2ko soldata-igoeren ondorioz, hurrenez hurren, eszedentzian zeuden bi funtzionario lanera itzultzeagatik eta 2020an erretiro aurreratuetatik kalte-ordain puntuala ordaintzeagatik.
- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak** % 12,9 gehitu ziren, azpiegiturak mantentzeko eta kontserbatzeko gastu handiagoak egin zirelako.
- **Transferentziek eta dirulaguntzek** % 21,1 egin dute behera, eta nabarmentzekoa da Mankomunitatera egindako transferentziaren bariazioa, aipatu tasa eskualdatu delako eta 2018an erregistratu direlako aurreko ekitaldietako gastuak.

Aurrezki gordina, garbia eta zorpetzea: Zorpetzerik ez izateak berdindu egin ditu aurrezki gordina eta garbia; horiek 2020an 309.984 euro egin zuten, sarrera korronteen gainean % 14,5. Aztertutako aldiaren bilakaera negatiboa izan du eta sortutako aurrezkiak % 53,5 murriztu da.

Kapital-eragiketen emaitza: Hirurtekoan 2,1 milioi euroren inbertsioak egin dira, sarrera arrunten % 29,9, sortutako aurrezki garbia (1,7 milioi euro) gaindituz. Kapital-dirulaguntzengatik finantzaketa, oinarriko lanbide-heziketara bideratutakoak kenduta, inbertsioen % 22 izan zen.

GODG: Egonkor eutsi dio eta 2019ko superabita 2020ko eragiketa ez-finantzarioen defizit bidez konpentsatu da. Kopuruari dagokionez, 659.119 euro, ekitaldi horretako sarrera arrunten % 30,8aren pareko da, hirurteko kapitalezkotako eragiketek eskatzen duten batez besteko finantzaketa gainditzen duela, 530.147 euro.

Ondorioa: Zerga itunduen bilketan (UFFF) izandako partaidetzagatik diru-sarreraren murrizketa puntualak eta zerbitzuen kostuen igoerak sortutako aurrezki-maila murriztu dute. Hirurtekoan sortutako batez besteko aurrezki-maila kapital-eragiketen finantzaketa-premien antzekoa izan da, eta GODG ekitaldi bateko batez besteko beharren parekoa da.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Gipuzkoako toki-erakundeei aplikatu dakizkiekeen ezohiko eta premiazko finantza-neurriei buruzko 9/2020 Foru Dekretu-Araua 2020rako eta 2021erako zerga-arauak etetea xedatu zuen, eta horrek esan nahi du aurrekontuaren egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak indarririk gabe utzi zirela eta aipatutako urteetan gastu-araua ez zela aplikatu.

**V. URTEKO KONTUAK****V.1 UDALA**

2020KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARR.	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB. KITAT.	KOB.R. KOB.R.	KOB.R. GABEA	% EGIK.
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Zerga zuzenak	A.3	607	-	607	598	585	13	% 99
2. Zeharkako zergak	A.3	50	-	50	41	40	1	% 82
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	153	-	153	115	112	3	% 75
4. Transferentzia arruntak	A.4	1.540	-	1.540	1.375	1.375	-	% 89
5. Ondare-sarrerak.....	-	11	-	11	14	14	-	% 127
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	173	-	173	416	416	-	% 240
8. Aktibo finantzarioak	-	-	871	871	-	-	-	E/E
SARRERAK, GUZTIRA		2.534	871	3.405	2.559	2.542	17 (*)	% 101

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza geldikina txertatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAINK. ORDAINK.	ORDAIN. GABEA	% EGIK.
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Langileen gastuak.....	A.5	871	-	871	861	855	6	% 99
2. Ondasun arrunten eta zerb. kontratazioa	A.6	723	15	738	707	657	50	% 96
4. Transferentzia arruntak	A.7	323	22	345	265	253	12	% 77
5. Kred. glob. eta bestel. ustekabekoak...	-	80	(60)	20	-	-	-	E/E
6. Inbertsio errealak	A.6	376	894	1.270	984	967	17	% 77
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.7	161	-	161	168	113	55	% 104
GASTUAK, GUZTIRA		2.534	871	3.405	2.985	2.845	140	% 88
SARRERAK - GASTUAK				(426)				

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSKINA	HASIERAK.	KOB.R. BALIOG.	ORDAINK. ORDAINK.	AZKEN ZORRA
		ZORRA			
Kobratzeko dauden saldoak.....	A.8	89	(9)	34	46
Ordaintzeko dauden saldoak.....		48	-	47	1
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA			(9)		



AURREKONTUAREN EMAITZA		Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....		2.559
Obligazio aitortuak.....		2.985
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA		(426)
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA		(9)
EKITALDIAREN AURREKONTUKO EMAITZA		(435)
Finantzaketako desbideratzeak.....		-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....		749
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA		314

DIRUZAINZA GELDIKINA		Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 20.1.1ean.....		1.126
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza.....		(435)
DIRUZAINZA-GELDIKINA 20.12.31-N		691
Diruzaintzako funts likidoak.....		916
Sarreraren aurrekontuko zordunak.....		63
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....		1
Gastu-aurrekontuaren hartzekodunak.....		(141)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....		(148)
DIRUZAINZA GELDIKINA 20.12.31N		691
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....		(32)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina.....		-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA 20.12.31N		659
ZORPETZEA 2020.12.31N		-

BALANTZEAK ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	ERANSKINA	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
AKTIBO EZ ARRUNTA		9.389	8.535	ONDARE GARBIA	10.047
lbilgetu ukiezina.....		84	84	Ondarea.....	5.369
lbilgetu materiala.....		9.305	8.451	Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	4.039
				Ekitaldiko emaitza.....	372
				Jasotako dirulag., egozteko daudenak.....	267
AKTIBO KORRONTEA		947	1.296	PASIBO KORRONTEA	289
Zordunak eta kobr. bst. knt. batzuk .. A.8		31	57	Epe motzeko zorrak..... A.8	120
Eskud. bst. akt. lik. baliokideak.....		916	1.239	Hartzek. eta ord. bst kontu batz..... A.8	169
GUZTIRA		10.336	9.831	GUZTIRA	10.336
					9.831



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EKITALDIKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA	Euroak milakotan	
	2020	2019
Zergak	631	649
Tasak	92	139
Kontribuzio bereziak	-	4
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	1.743	1.772
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.	37	69
Hornidura gehiegizkoak	33	21
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	2.536	2.654
Langileen gastuak	(877)	(780)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	(433)	(446)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.	(748)	(712)
Ibilgetua amortizatzea	(106)	(106)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(2.164)	(2.044)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	372	610
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA	372	610



V.2 AIA-LANTZEN SA

BALANTZEAK ABENDUAREN 31N				Euroak milakotan	
AKTIBOA	ERANSK. 2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSK. 2020	2019
AKTIBO EZ ARRUNTA	148	171	ONDARE GARBIA	597	642
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.9 148	171	Kapitalezkoak	771	771
			Erreserbak.....	73	73
			Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(202)	(199)
			Ekitaldiko emaitza.....	(45)	(3)
AKTIBO KORRONTEA	471	471	PASIBO KORRONTEA	22	-
Izakinak	A.9 43	43	Merkataritzako hartzekodunak	22	-
Zord. eta kobr. bst knt b.	28	380			
Eskudirua eta aktibo baliokideak....	400	48			
AKTIBOA, GUZTIRA	619	642	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA	619	642

EKITALDIKO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA			Euroak milakotan	
	ERANSK.	2020	2019	
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	A.9	4	7	
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	A.9	(28)	(3)	
Ibilgetua amortizatzea.....		(6)	(6)	
Ibilgetua besterenganatzeagatiko narriadura eta emaitza	A.9	(11)	-	
Beste emaitza batzuk		(4)	(1)	
USTIAPENAREN EMAITZA		(45)	(3)	
EMAITZA ZERGA AURRETIK		(45)	(3)	
EKITALDIKO EMAITZA		(45)	(3)	



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Aiako Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu hauek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare-sarrerak, dirulaguntzak eta kreditu-eragiketak.

Ekitaldian ezargarria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 21/2003 Foru Arauak jasotzen du, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 86/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2019ko azaroaren 13ko Osoko bilkurak onetsi zuen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko urtarrilaren 13an eman zen argitara.

Hona hemen, 2020ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Euroak milakotan			
	Kreditu txertaketa	Transferentziak Norakoa	Jatorria	GUZTIRA
8. Aktibo finantzarioen bariazioa: Geldikina.....	871	-	-	871
SARRERAK, GUZTIRA	871	-	-	871
2. Ondasun arrunt eta zerbitz. kontrat.	-	15	-	15
4. Transferentzia arruntak.....	7	15	-	22
5. Kreditu globala.....	-	-	(60)	(60)
6. Inbertsio errealak.....	864	30	-	894
GASTUAK, GUZTIRA	871	60	(60)	871

Onartutako 4 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 34 gehitu dute.

2020ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2021eko apirilaren 26ko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra Udalbatzak onartu zuen 2021eko irailaren 15ean.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan SARRERA
Ondasun higiezinaren gaineko zerga	311
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga	103
Trakzio mekanikodun Ibilgailuen gaineko zerga.....	159
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera.....	25
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	598
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga	41
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	41
Kultur Etxeko ikastaroak: musika, pilates, judo, eskola kirola	14
Ospitalea-udal etxebizitza lagundurako egonaldiak	10
Etxez etxeko laguntza.....	15
Kontzertuetara joatea eta udalekuak	12
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak	7
Enpresa hornitzaileek lurra, lurpea eta hegala okupatzea.....	29
Isunak	2
Premiamenduko errenergua	4
Telefonia enpresak	13
Beste txiki batzuk	9
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	115
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	754

Udalak kutxa-irizpidea aplikatzen du OHZren eta EJZren diru-sarrerak aitortzean, ekitaldiko kobrantza-errolak aitortu beharrean, GFak borondatezko aldiari kudeatu eta biltzeagatik. GFak konturako ekarpenak egiten ditu eta urteko likidazioak egiten ditu azaroan (OHZ) eta hurrengo ekitaldiaren hasieran. GFak bi zergen dirubilketa exekutiboa ere kudeatzen du eta hiru hilean behin likidazioak egiten ditu. 2020ko azken hiruhilekoari dagokiona, 2021ean erregistratu zena, 34.910 eurokoa izan zen. Gainera, ekitaldia ixtean, zerga bietatik kobratzeke zeuden ordainagiriak 68.147 euro ziren, eta horietatik 15.512 euro 2020ko likidazioei dagozkie. Azken horiek kontuan hartuz gero eta 2020ko laugarren hiruhilekoko bilketa exekutiboa likidatuz gero, diru-sarrerak 50.422 euro handituko lirarteke.

Uraren kudeaketa integraleko eta zabor bilketako zerbitzuak beste erakunde batzuei transferituta daude, zerbitzu horiek finantzatzen dituen tasarekin batera. Udalak 2013an eman zion lehen zerbitzua Gipuzkoako Ur Kontsoltzioari, 10 urterako. 2017an, zaborra biltzeko zerbitzua Mankomunitateari eskualdatu zion.



A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hauek dira transferentzia arrunten eta kapitalezko transferentziek eragindako sarreren xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	Korront.	Kapitalezkoak
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA		
UFFF-Itunpeko zergetan partaidetza 2020 - konturako ordainketak.....	1.275	-
UFFF-Itunpeko zergetan partaidetza: 2019ko likidazioa.....	33	-
Etterako laguntza zerbitzua	26	-
Herribideak.....	-	31
Tokiko merkataritza eta ostalaritza suspertzea.....	-	14
Beste txiki batzuk.....	10	3
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA		
Udal igerilekua zaharberritzea.....	-	200
Oinarrizko Lanbide Heziketa-Soldadura-galdaragintza (Mankomunitatea).....	-	168
2020ko GLL eta 2019ko osagarria	18	-
Osasun Zentroa mantentzea eta bake epaitegia mantentzea.....	11	-
BESTE BATZUK		
Estatua: Itundu gabeko zergak.....	2	-
4 eta 7 KAPITULUAK GUZTIRA	1.375	416

2020ko UFFFren likidazio positiboa 2021eko otsailean onartu zen, 87.086 euroren zenbatekoarekin. Udalak 2021eko diru-sarrera modura erregistratu zuen.

EAEk 2020-2021 ikasturtera arteko lanbide-heziketako ikastaroak emateko eskumena eskuordetu zuen 2016an. 2021ean, EAEk ordezkari berri du Mankomunitatearen alde.

GFAk 14.555 euroren laguntza eman zion Udalari, tokiko merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorearen ekonomia suspertzeko. 2020ko abenduaren 31n Udalak ez zuen gauzatu dirulaguntza eragin zuen jarduera, eta zegokion finantziario-desbideratzea gertatu zen.



A.5 LANGILEEN GASTUAK

Gastu-kapitulu hau era honetara xehakatzen da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan eta lanpostu kopurua		
	Gastua	LZ	Plantilla 20.12.31
Udalkideak (alkatea)	50	-	1
Funtzionarioak (2 lanpostu % 20ko eta % 75eko dedikaziodunak).....	300	11	6
Lan kont. finkoko lang. (2 lanpostu % 19ko eta % 51ko dedikaz.).....	249	4	3
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	27	-	(*) 9
Ordainsarien guztizko partziala	626	15	19
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	180		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak: Elkarkidetza	23		
Aldez aurreko erretiroarengatik kalte-ordaina funtzionarioari.....	31		
Prestakuntza.....	1		
GUZTIRA	861		

(*) Lanpostu hutsa betetzeko bitarteko 2 langile eta obra/ekoizpen inguruabarrengatik aldi baterako 7 kontratu.

Langileen ordainsariak % 2 egin zuten gora, 2019an indarrean zeudenen aldean.

Aurreko taulako Gizarte Segurantzaren kotizazioak azarora arte zorpetutakoak dira, 2020ko abenduko kuotak barne hartu gabe, 15.143 euro.

Altak

2020ko ekitaldian Udalak honako langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kop.
Aldi baterako lan kontratupekoak (15 langile)	15
Uztaileko obra-kontratua – udalekua (% 57ko dedikazioa)	11
Kirol koord. 2020-21eko ikast. obra-kontratua, spinning ikastaroak eta pianoa	3 (*)
Admin.-zerbitzuen beharrian puntualengatik aldi baterako kontratua (urtebete) ...	1
GUZTIRA	15

(*) % 16ko eta % 22ko dedikazio partziala.



A.6 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZU ETA INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioak honako xehakapen hau du:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan Gastua
Konponketak, mantentze-lanak eta zaintza	231
Bulegoko materiala	25
Hornidurak	103
Energia elektrikoa.....	71
Ura, gasa, gasolioa eta bestelako hornigaiak	32
Komunikazioak, garraioa eta zerbitzu informatikoak	49
Aseguru-sariak	14
Hainbat gastu	87
Kultura jarduerak.....	61
Musika ikastaroak eta bertsolaritza	10
Gastu juridikoak, publizitatea eta beste gastu batzuk.....	16
Kanpoko enpresek egindako lanak	182
Etxez etxeko laguntza eta Ospitaletxe zentroa	80
Ludotekak eta udalekuak.....	33
Hirigintzako aholkularitza	31
Udal igerilekuko sorospena.....	11
Mankomunitatea: Urteta zabortege zaharreko ordainketak	7
Laneko aholkularitza, eskuhartze familiarreko zerbitzuak eta beste txiki batzuk	20
Mugikortasun-dietak, lekualdatzeak eta kalteordainak	3
10 zinegotziren dietak, Osoko Bilkuraren eta Udalbatzaren 7 bileretara joateagatik	13
GUZTIRA	707

Mankomunitateak Urtetako zabortegea 2014ko abenduan itxi arte kudeatu zuen. 2015etik aurrera, Mankomunitateak bere gain hartu behar ditu zabortegea ixteko eta 35 urtez mantentzeko inbertsioak. 2014an egindako kostuen zenbatespena finantzatzeko, erakunde mankomunitateak 2015etik aurrera tasa baten ordainketa geroratua onartu zuten 30 urtez. Aiako Udalaren kasuan, urteko ekarpena 6.766 eurorena izan zen, eta kontzeptu horrengatik 2021etik 2044ra bitarte egin beharreko ordainketak 162.616 eurorenak izan ziren. Udalak ez du erregistratu dagokion urte anitzeko kreditua, eta ez da zuzkidurarik egin ondare-kontuetan, nahiz eta Oroitidazkiak horren berri eman.



Inbertsioak

Hona hemen egindako inbertsioen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	Gastua
Igerilekuak eraberritzea: irisgarritasuna eta beste hobekuntza batzuk	545
Udal pilotalekuko teilatua konpontzea.....	91
Aurizenea-Azkue pasealekua berritzea.....	89
Landa-bideak hobetzea	91
Argiteria publikoa eta seinaleztatzea.....	24
Orga jasotzailea eta agertokia.....	30
Beste txiki batzuk	114
GUZTIRA	984

Kontratazioaren legezkotasunaren analisia

2019ko abenduan 554.114 euroan (BEZa barne) prozedura irekiaren bidez esleitu zen udal-igerilekuak eraberritzeko obraren kontratazio-espeditentea berrikusi dugu. 2020ko urtarrilaren 15ean hasi ziren lanak egiten, eta maiatzean amaitzea aurreikusi zen.

Beste erosketa batzuk aztertu ondoren, kontratu txiki modura izapidetu ziren erosketak atzeman ditugu, prozedura ireki sinplifikatu laburtu bidez egin beharrean.

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Gastua
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.....	80
Energia elektrikoaren hornidura	69
GUZTIRA	149

Gainera, ikusi da obra bat 2 kontratu txikitan zatitu zela eta zerbitzu batek 2020ko urtarrilaren 31n amaitu zuela indarraldia. Bi kasuetan ere prozedura ireki sinplifikatu laburtua erabili behar zatekeen:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Gastua
Udal pilotalekuko teilatua konpontzea.....	91
Udal arkitektuaren zerbitzua (2020ko otsailetik abendurako ordainagiriak)	28
GUZTIRA	119



A.7 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK ETA KAPITALEZKOAK

Hona hemen 2020ko transferentzien eta dirulaguntzen xehakapena:

	Euroak milakotan
ONURADUNA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA	Gastua
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	294
Mankomunitatea: Gastu korronterako ekarpenak (4. kapitulua)..... (*)	126
Mankomunitatea: oinarritzko lanbide heziketa (7. kapitulua)..... (*)	168
DEIALDI BIDEZ EMANDAKO DIRULAGUNTZAK	19
GGL (21 onuradun)..... (*)	18
Euskararen irakaskuntza (3 onuradun).....	1
DIRULAGUNTZA ZUZENAK	16
Lorraz elkartea: eskuhartze familiarreko zerbitzua	9
Elan Euskadi elkartea: lankidetzeta eta garapen programa Kolonbian.....	4
Lardizabal guraso elkartea, Andatzako auzoko elkartea eta Daldorri SL	3
DIRULAGUNTZA IZENDUNAK	104
Lur Alkartasuna kooperatiba: gasolina-hornigailu berria	30 (*)
Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa: jarduera orokorrerako ekarpena	20 (*)
Aiako Kirol Elkartea: kirol eta musika ikastaroak, mendi martxa, Aiako igoera	14 (*)
Udal zinegotzien 2 talde: taldeen jarduera	11
Urkome 10 Landa Garapeneko Elkartea	10
Andatzako Erromeria eta Auzo Eskola Elkarreak (trikitrixa eta kultur jarduerak)	4
Idi-dema elkartea	4
Lardizabal eskolako eta haurreskolako guraso-elkartea.....	4
Adinekoen elkartea (2 erakunde)	3
Ipotx elkar. (gazteak), Hitez elkartea (emakume baserritarrak), Kulturetxe irakurle taldea, Eudel	4
TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK GUZTIRA	433
4. KAPITULUKO GASTUAK GUZTIRA	265
7. KAPITULUKO GASTUAK GUZTIRA	168
(*) Aztertze hautatuak.	

Mankomunitateari egindako ekarpenek honako zerbitzu hauek finantzatzen dituzte:

	Euroak milakotan
Kostu nagusien deskribapena	Ekarpena
Prestakuntza, enplegua eta enpresak (soldadura eskola hartzen du)	51
HHS biltzeko zerbitzuaren defizita (Mankomunitateak kobratutako tasa).....	41
Euskara eta komunikazioa	8
Kudeaketa turistikoa	7
Gastu orokorrak eta gobernu organoak	19
GUZTIRA	126

Mankomunitatearen estatutuek diote zerbitzu mankomunatuak emateko beharrezkoak diren ekarpenak biztanle-kopurua kontuan hartuta banatuko direla (% 4,7 Udalarentzat 2020an), baina ez dute zehazten 5 udal kideek eman beharreko zenbateko osoa kalkulatzeko sistema; horrela, bada, 2020an Mankomunitateak berak zehaztu zuen zenbatekoa, zerbitzuen defizit zenbatetsia kontuan hartu eta aurrekontuaren zenbatespenekin kalkulua eginda.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ekarpena ez da 2021ean zuzendu exekuzio-datu egiazkoak baliatuta. Mankomunitatearen 2020ko aurrekontu-emaitza doitu positiboa 472.259 euro izan zen, eta 1,3 milioi euro 2020ko abenduaren 31ra arte metatutako GODG. Halaber, GODGren kalkuluan 2,1 milioi euro deskontatu ziren aurreko urteetako udal-ekarpenengatik, ez baitziren Mankomunitateak emandako helburu espezifikorako erabili.

2016ko irailean, Aiako Udalak Mankomunitateari agindu zion soldadura-galdaragintzako oinarritzko lanbide-heziketako prestakuntza-zikloak emateko lanak kudeatzeko, EAEEK 2020-21 ikasturtera arte eskuordetua zuen eskumena. Udalak urtero eskualdatzen dio Mankomunitateari EAEEKtik jasotako dirulaguntza, 2020an 168.068 euro (ikus A.4 eranskina).

Aiako Kirol Elkarteak aurkeztutako justifikazioak dirulaguntza izenduna zertarako erabili den zehazten du.

	Euroak milakotan
Kostu nagusien deskribapena	Zenbat.
Kotxeen lasterketa: sarrerak kobratzea eta publizitatea	13
Kotxeen lasterketa: bazkaria (3), Lagun Artea elk. (2), anbulantzia, kartelak, etab.	(17)
Mendi martxa-inskripzioen kobrantza	7
Mendi martxa- dorts. eta web. kudeak. (1) txakolina eta gazta (3) anbulantzia, sariak.....	(8)
Pandero eta txistu ikastaroak (diru-sarrerarik gabe)	(3)
Kirol-ikastaroak (diru-sarrerarik gabe)	(4)
San Silvestre lasterketa, Herri Kirolak jardunaldia, banku-komisioak, etab.	(1)
GUZTIRA	(13)



A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK, PASIBO KORRONTEA ETA KONTINGENTZIAK

Hona hemen 2020ko abenduaren 31n aurrekontuko zordunen xehakapena:

KONTZEPTUA	Aurrekontu itxiak				Euroak milakotan	
	20/1/1	Baliog.	Kobr.	20/12/31	20/12/31	GUZTIRA
Trakzio mekanikodun lbigailuen gaineko zerga	30	8	10	12	12	24
HILBI zerga.....	8	-	2	6	2	8
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga.....	8	-	7	1	-	1
Zabor-bilketa	12	-	-	12	-	12
Musika Eskola.....	4	-	4	-	-	-
Kultura zerbitzuak.....	3	1	-	2	-	2
Kontribuzio bereziak.....	7	-	-	7	-	7
Zehapenak.....	7	-	7	-	1	1
Beste txiki batzuk.....	2	-	-	2	2	4
1etik 3rako kapt. guztizko partziala	81	9	30	42	17	59
4. kapitulua Transfer. eta dirulaguntza korronteak	4	-	4	-	-	-
5. kapitulua Ondare-sarrerak.....	4	-	-	4	-	4
GUZTIRA	89	9	34	46	17	63
Nekez egingarri diren saldoetarako zuzkidura						(32)
Aurrekontuko kobratzeko saldoak zuzkiduratik garbi						31

Udalak 32.129 euroan balioetsi du 2020ko abenduaren 31n nekez kobragarri diren saldoentzako hornidura eta halakotzat jo ditu 2 urtetik gorako antzinatasuna duten saldoak.

Pasibo korrontea eta kontingentziak

Balantzeko idazpuru honek honako xehakapena zuen 2020ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan
	Saldoa
Epe motzeko zorrak	120
Inbertsio errealen aurrekontuko hartzekodunak	16
Hartzekodun ez aurrekontukoak epe laburreko fidantzenatik.....	104
Hartzekodunak. eta ordaintzeko. beste kontu batzuk	169
Eragiketa arrunten aurrekontuko hartzekodunak eta kapital-transfer.	124
Hartzekodun ez aurrekontukoak: administrazio publikoak	45

Epe laburreko fidantzen kontuan, 2011ko ekitaldian abal bat gauzatzeagatik kobratutako 60.000 euro jaso dira.

2020ko ekitaldiko Oroitidazkiak errekurtsio judizial bati buruzko informazioa ematen du. Errekurtsio horrek zalantzan jartzen du obra-lizentzia bat ematearen legezotasuna, eta, gehienez, 573.000 euroren zenbatekoan balioesten du Udalarentzat dagoen kontingentzia. Kontuak onartu ondoren, Donostiako administrazioarekiko auzien 1 zenbakiko epaitegiak Udalaren aldeko epaia eman du, eta horren aurka errekurtsioa jarri da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian.

A.9 AIA-LANTZEN SA

Hona hemen udal sozietatearen higiezinako inbertsioak eta izakinak 2020ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Kostua	Amortiz. metatua	Saldoa
4A, 4B eta 8 zk. lokalak	181	49	132
4 zk. trastelekua.....	21	5	16
IBILGETU MATERIALA GUZTIRA			148
IZAKINAK GUZTIRA (2 trasteleku)			43

2020an trasteleku bat saldu zen 5.501 euroan eta 11.441 euroren galera izan zen.

Sozietatearen diru-sarrerak -3.885 euro- higiezinaren alokairuak eragin ditu, eta 2020ko kosturik handienak honako hauek izan ziren: 22.756 euroren konponketa bat, 6.861 euro enpresa baten aholkularitza sozietatea kudeatzeko, eta ibilgetuaren amortizazioa, 5.996 euro.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

AES	Ayudas de Emergencia Social.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
FFFM	Fondo Foral de Financiación Municipal.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
IVTM	Impuesto Vehículos Tracción Mecánica.
IIVTNU	Impuesto Incremento del Valor de Terrenos de Naturaleza Urbana.
Mancomunidad	Mancomunidad Urola Kosta.
RTGG	Remanente de Tesorería para Gastos Generales.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado la Cuenta General del Ayuntamiento de Aia para el ejercicio 2020.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el ejercicio fiscalizado.
